

ALEGACIONES PRESENTADAS POR LA UPV/EHU AL «ANTEPROYECTO DE LEY DE ESPECIALIDADES EN MATERIA DE DERECHO PATRIMONIAL VASCO Y DEFENSA DEL PATRIMONIO Y LA EMPRESA FAMILIAR»	UPV/EHUK «EUSKAL ONDARE ZUZENBIDEAREN ETA FAMILIA-ONDAREA ETA -ENPRESA BABESTEAREN ARLOKO BEREZITASUNEI BURUZKO LEGEAREN AURREPROIEKTUA» DELAKOARI AGERTZEN DIZKION ARRAZOIBIDEAK
I. Consideraciones generales sobre el Anteproyecto: oportunidad, sistemática, competencia	I. Aurreproiektuari buruzko gogoeta orokorrak: egokitasuna, sistematika, eskuduntza
1. El Anteproyecto de Ley de Especialidades en materia de Derecho Patrimonial Vasco y Defensa del Patrimonio y la Empresa Familiar (en adelante, APLDPV) hace patente el propósito de que el ejercicio de la competencia en materia civil por parte de la Comunidad Autónoma de País Vasco (CAV) se realice al margen de la Ley 5/2015 de Derecho Civil Vasco (LDCV), y ello supone una muy cuestionable opción desde un punto de vista de lógica y coherencia legislativa. En el ámbito del Derecho civil, y respondiendo a los ideales de la codificación, es constante y generalizada la tendencia a reunir todas las normas en un cuerpo sistemático y organizado por materias: Derecho de la persona, Derecho de familia, Derecho de cosas (bienes y derechos reales), Derecho de las obligaciones y contratos, y Derecho de sucesiones. No hay duda de que también es posible cumplir con las exigencias de racionalidad, orden, claridad y coherencia legislativas optando por regular estas materias en leyes independientes. Pero lo que es inexcusable es que cada una de esas leyes cumpla con las aludidas exigencias y no se convierta en una amalgama asistemática de contenidos dispares. Por lo demás, es cierto que, especialmente en el ámbito contractual, viene siendo habitual la existencia de leyes al margen de los Códigos, pero también es verdad que los legisladores más atentos al Derecho civil y a la técnica de la legislación tienden a la	1. Euskal Ondare zuzenbidearen eta familia-ondarea eta familia-enpresa babestearen arloko berezitasunei buruzko Legearen Aurreproiektuak (aurrerantzean EOLAPk) agerian jartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoak (EAEk), gai zibilak arautzeko duen eskuduntza Euskal zuzenbide zibilari buruzko 5/2015 Legearen (EZZLaren) alboan eraikitzeke asmoa hartu du, logikaren eta legegintza koherentearen ikuspegitik aukera oso eztabaidagarria dela jo daitekeen arren. Zuzenbide zibilaren eremuan, eta kodegintzak jarritako idealak jarraituz, modu sistematiko eta gaien arabera antolatutako arau guztiak lege-gorputz berean biltzeko joera etengabea eta orokorra izan da: pertsona-zuzenbidea, familia-zuzenbidea, gauza-zuzenbidea (ondasunak eta eskubide errealek), obligazio-zuzenbidea eta kontratuak, eta oinordetza-zuzenbidea. Horrek ez du esan nahi arrazionaltasuna, ordena, argitasuna eta legegintza-koherentzia lortzea posible ez denik gai horiek guztiak lege berezien bidez arautzea erabakitzen bada. Baina nekez onar daiteke, ordea, lege berezi horietako bakoitzak goian aipatu diren betekizunak ez izatea eta eduki oso desberdinak jasoko dituen nahaspila asistematikoa biltzea. Gainerakoan, kontratuen arloan nagusiki, lege bereziak Kodetik kanpo ematea ohiko joera izan da, baina, ohartarazi behar da ere, Kode zibila balioesten eta legegintzaren teknikak kontuan hartzen dituzten legegileek, lege-gorputz bakarrean batzeko eta

periódica reunificación y resistemización en un solo cuerpo legal. Ya en el momento actual la legislación civil vasca adolece de una seria inconsistencia, pues no se entiende que una Ley reciente, que se denomina de Derecho Civil Vasco, no integre normas que a todas luces también lo son (Derecho civil vasco). Las razones que pudieron existir para no ofrecer un cuerpo normativo unificado en 2015 no excusan la pervivencia de semejante dispersión y falta de sistemática y coherencia. Pero lo que todavía puede interpretarse como simple mantenimiento del <i>statu quo</i> por falta de iniciativa o particular interés en el ámbito del Derecho civil, amenaza con convertirse en una opción consciente a la vista de iniciativas como el APLDPV. 2. En el anteproyecto se acumulan muy distintas materias bajo un elemento aglutinador (Derecho patrimonial vasco) demasiado general, lo que contribuye a una importante sensación de dispersión y desorden: facultades del dominio conectadas sea al caserío, sea con una dimensión más amplia (toda construcción o plantación); régimen del domicilio; derecho de alimentos vinculado a la habitación en la casa familiar; derechos de sepultura; servidumbres; frutos; bienes (objetos del derecho de propiedad); arrendamiento rústico del caserío y otros pactos de explotación agrícola; el arrendamiento del caserío, heredad o edificación (no urbana) para actividades distintas al agrícola o de vivienda; normas sobre empresa familiar, etc. Todo ello debería ser sistematizado y ordenado de acuerdo a las grandes materias, ya enunciadas, del Derecho civil y, se insiste, en la LDCV. Es cierto que el Título I de cuerpo legal se encabeza precisamente con la denominación Principios de Derecho Patrimonial, y que en los arts. 12-16 LDCV puede verse el germen de algunas de las materias reguladas en el anteproyecto. Pero lo que en 2015 era poco más que un apunte	sistematizatzeko erabakiak burutzen dituztela noizik eta behin. Dagoeneko une honetan ere, euskal legedia zibilak badu ahultasun nabarmen bat, zaila baita ulertzea nola Lege berri batek, Euskal zuzenbide zibila izenpean, ez dituen bere baitan hartu zalantzarik gabe ere zibilak diren arau guztiak (euskal zuzenbide zibilekoak). Arau-testu bateratu bat ez osatzeko 2015. urtean egon zitezkeen arrazoiek ezin dute gaur egun justifikatu halako sakabanaketak eta sistematika nahiz koherentziarik ezak oraindik irautea. Zuzenbide zibilaren gaineko ardura berezirik ez izatea ezarritako <i>statu quo</i> delakoari besterik gabe eusteko aukera dela interpreta badaiteke ere, argitara eman den aurreproiektu honen ekimenak aukera tekniko kontziente bihurtzeko arriskua sortu du. 2. Aurreproiektuak, orokorregia den elementu elkartzailearen (euskal ondare-zuzenbidearen) itzalean oso gai desberdinak pilatzen ditu, erabateko sakabanaketa eta nahasketa sentsazioa sortuz: jabetzaren ahalmenak bai baserriaren, bai hedadura zabalagoaren (eraikinaren edo landaketaren) gainean; norbaiten bizilekuaren eraientza; mantenu-eskubidea familiaren etxebizitzako gelari lotuta; ehorts-lekuaren gaineko eskubidea; zerbitzaritzak; fruituak; ondasunak (jabetza-eskubidearen objektu); baserriaren landa-errentamendua eta nekazale-ustategien gaineko itunak; nekazaritzarako edo etxebizitzarako ez den jarduerak burutzeko baserria, lursaila edo eraikuntza (hirikoa ez dena) errentan ematea; familia-empresari buruzko arauak, eta abar. Hori guztia, sistematizatu eta txukundu beharko litzateke aipatu diren zuzenbide zibileko eremu nagusien arabera eta, berriro diogu, EZZLan. Jakina denez, lege horren I. Tituluaren izenburua da, hain zuzen ere, Ondareari buruzko Zuzenbidearen Printzipioak, eta 12-16. artikuluetan aurki daitezke aurreproiektuan araututako hainbat gaien hazia eta iturria. Baina, 2015. urtean, etorkizunean gara zitezkeen arau-ekimenak aipatzeko azkar
--	--

apresurado de cara a futuras acciones normativas (incluso en el art. 13 LDCV se habla de una futura ley especial sobre arrendamientos rústicos) no debe condicionar el ejercicio de la competencia. La formación de un cuerpo sistemático de Derecho civil vasco es no solo un presupuesto necesario de su afirmación y futuro crecimiento, sino también de facilitación de la labor de los operadores jurídicos y, en definitiva, de seguridad jurídica. 3. Otro nivel de valoración corresponde a las normas en concreto. Los preceptos son excesivamente largos, pues en los distintos números de los artículos a menudo se regulan cuestiones muy diversas. Por lo demás, no son extraños los enunciados meramente descriptivos y sin contenido sustancial en un plano jurídico (especialmente llamativos en un texto que solo pretende ser de «especialidades») o la inclusión de normas con un contenido más propio del Derecho administrativo. También se hacen presentes aspectos de dudosa coherencia técnica. De esto último, sirvan dos ejemplos: a) No se acierta a entender qué se persigue cuando en varias ocasiones (p. ej., art. 23.3 APLDPV <i>in fine</i>) se establece un llamativo mandato de exclusión expresa de las normas de carácter dispositivo. Y es que si las partes han establecido acuerdos en ámbitos en los que ello resulta posible, es obvio que no se aplicará el Derecho dispositivo (sean normas autonómicas o estatales). b) ¿Se parte en el art. 3.6 APLDPV de que, aun sin previa constitución en régimen de propiedad horizontal, puede haber propiedad separada? En la inteligencia común [también de la dicción del párrafo segundo del art. 2 b)] se entiende que, en el plano de la propiedad, sigue tratándose de una titularidad por cuotas, y, por tanto, de una situación de comunidad en la que habrá pisos, locales o elementos de uso privativo y otros que lo sean de uso común.	batean jasotako ohar horiek (hala nola EZZLko 13. artikulua landa-errentamendua lege bereziaren bitartez arautzeko asmoa jasotzen du) ezin dute besterik gabe zuzenbide zibilararen gaineko eskuduntza mugatu. Euskal zuzenbide zibila gorputz sistematiko batean biltzea ezinbestekoa da bere izatea sendotzeko eta bere hazkunderako, baita eragile juridikoen zereginak errazteko ere eta, azken batean, segurtasun juridikoa bermatzeko. 3. Arau jakin bakoitzari buruz iritzia beste modu bateko azterketa behar du. Xedapenak nabarmenki luzeak dira, artikuluen zenbakietan zehar, sarritan, oso arazo eta gai ezberdinak arautzen direlako. Bestalde, maiz agertzen dira ere besterik gabeko izaera deskriptiboa duten edukiak, maila juridikoan mami substantzialik gabekoak (bereziki deigarria «berezitasunak» jaso nahi dituen testu batean) edo leku egokiagoa zuzenbide administratiboan duten manamenduak. Halaber, topa daitezke ere koherentzia teknikotik zalantzarik diren aukerak. Azken horietatik, hona adibide bi: a) Ulertezina suertatzen da jakitea zergatik, hainbatetan (esaterako EOLAPeko 23.3. art. <i>in fine</i>), ezartzen den izaeraz xedapenezkoak diren manamenduak esanbidez baztertzeko agindua. Izan ere, erabakiak har daitezkeen eremuetan alderdiek bereak ezarri baldin badituzte, esan beharrik ere ez dago xedapenezko zuzenbidea ez dela aplikagarri (arauak autonomikoak edo estatalak izan). b) Jabetza horizontalaren eraentza aurrez eratu gabe jabetza banandua egon daitekeela al da EOLAPeko 3.6. artikulua abiapuntua? Edonoren zentzuan [2 b) artikulua bigarren lerroaldearen ulerkeran ere], jabetzaren mailan kuota bidezko titulartasuna dagoela ulertzen da, eta, beraz, erkidego-egoera bat zeinean bilduko diren etxebizitzak, lokalak edo erabilera pribatuko elementuak, eta erabilera komuneak diren besteak.
---	---

4. En todo lo anterior se ha prescindido de consideraciones competenciales. Es una cuestión de decisión política actuar al respecto con prevención y cautela o mostrar mayor ambición. Dos Comunidades Autónomas con excelente legislación desde un punto de vista técnico, Aragón y Cataluña, son ejemplo de una u otra cosa. Es cierto, además, que la agenda y los equilibrios políticos determinan la interposición y la retirada de los recursos de inconstitucionalidad, y que los criterios del Tribunal Constitucional sobre la interpretación del art. 149.1.8.^a CE han ido variando con el tiempo. Con todo, no es inconveniente recordar ahora cuál es el estado de la cuestión por lo que hace a la jurisprudencia constitucional. Como es bien conocido, una vez asumida, la competencia autonómica en el ámbito civil se delimita de acuerdo a dos grandes parámetros: las posibilidades de desarrollo del propio Derecho y las materias reservadas, en todo caso, al Estado. Por lo que hace al primer parámetro, la doctrina constitucional entiende que el desarrollo no permite la legislación «por salto» y viene a requerir que exista conexión (se habla de instituciones conexas) entre la nueva normativa y la previa, sea escrita o consuetudinaria (SSTC 121/1992, de 28 de septiembre, 182/1992, de 16 de noviembre, 88/1993, de 12 de marzo, 156/1993, de 6 de mayo, 31/2010, de 28 de junio, 82/2016, de 28 de abril, 110/2016, de 9 de junio, 192/2016, de 16 de noviembre, 95/2017, de 6 de julio, 40/2018, de 26 de abril, 41/2018, de 26 de abril y 132/2019, de 13 de noviembre). Tal conexión no ha de ser, sin embargo, institucional (que se regule la misma institución u otra que cumpla una función similar), sino que cabe que la relación se establezca respecto del conjunto del ordenamiento y, por tanto, con principios informadores del sistema (SSTC 88/1993, de 12 de marzo, 156/1993, de 6 de mayo, 95/2017, de 6 de julio y 132/2019, de 13 de noviembre). Por otra parte, la conexión no ha de sentarse necesariamente respecto de normas vigentes al momento de entrada	4. Oraindaino esandakoan eskuduntzari buruzko gogoetak saihestu dira. Eskuduntza errezeloz eta arretaz baliatzea edo ausardi handiagoa erakustea erabaki politikoa da. Ikuspegi teknikitik legeri bereziki bikaina duten bi Autonomia Erkidego, Aragoi eta Katalunia hain zuzen, aukera bataren zein bestearen eredu izan dira. Egia da ere, gainera, agenda eta oreka politikoak zehazten dutela konstituzio-kontrakotasuneko helegiteak tarteratzea eta atzera botatzea, eta Auzitegi Konstituzionalak EKko 149.1.8. artikulua interpretatzeko erabili dituen irizpideak aldakorrak izan direla. Dena den, jurisprudentzia konstituzionalak bizi duen egoeraren berri ematea komenigarri jotzen da edonola ere. Jakina denez, behin eskuratu ostean, autonomiek arlo zibilean duten eskuduntza bi parametro nagusiren arabera mugatzen da: berezko zuzenbidea garatzeko dagoen aukera batetik, eta Estatuak beti bere esku izango dituen gaiak bestetik. Lehen parametroari dagokionez, doktrina konstituzionalak ulertzen du ezen, garatzeko aukerak, ez duela legedia «saltoka» egitea onartzen eta araudi berriaren eta aurrekoaren (idatziaren edo ohiturazkoaren) artean lotura egotea (erakundeen arteko lotura) eskatzen dela (KAEE 121/1992, irailaren 28koa; 182/1992, azaroaren 16koa; 88/1993, martxoaren 12koa; 156/1993, maiatzaren 6koa; 31/2010, ekainaren 28koa; 82/2016, apirilaren 28koa; 110/2016, ekainaren 9koa; 95/2017, uztailaren 6koa; 40/2018, apirilaren 26koa; 41/2018, apirilaren 26koa; eta 132/2019, azaroaren 13koa). Lokarri horrek, izaeraz, ez du zertan erakunde-lotura izan behar (erakunde berbera edo antzeko funtzioa betetzen duen beste bat arautzea), lotura ordenamendu osoarekiko eta, beraz, baita sistemaren funtsezko printzipioekin egitea nahikoa dela ulertzen delako (KAEE 88/1993, martxoaren 12koa; 156/1993, maiatzaren 6koa; 95/2017, uztailaren 6koa; eta 132/2019, azaroaren 13koa). Bestalde, ez da ezinbestean Konstituzioa indarrean jarri zen garaian indarrean ziren arauekin
---	--

en vigor de la CE; puede tratarse, por tanto, de normas postconstitucionales (implícitamente STC 41/2018, de 26 de abril, y expresamente STC 132/2019, de 13 de noviembre; superándose el diferente criterio mantenido en la STC 95/2017, de 6 de julio). Ciertamente todo lo anterior proporciona fundamentos muy plausibles para argumentar la conexión legitimadora del desarrollo que pretende el anteproyecto. Sin embargo, la cuestión puede ser más delicada por lo que hace a una de las materias reservadas en todo caso al Estado: las bases de las obligaciones contractuales. Aunque hasta fechas muy recientes la jurisprudencia constitucional eludía la referencia expresa a las bases de la obligaciones contractuales, se han venido a entender de competencia exclusiva del Estado: el establecimiento de derechos y obligaciones en el marco del contrato - <i>novum</i> contractual- [SSTC 71/1982, de 30 de noviembre, 88/1986, de 1 de julio, 62/1991, de 22 de marzo, 61/1997, de 20 de marzo, 264/1993, de 22 de julio, 157/2004, de 21 de septiembre, 54/2018, de 24 de mayo, 13/2019, de 31 de enero]; el perfeccionamiento, la validez y la eficacia de los contratos [SSTC 14/1998, de 22 de enero, 54/2018, de 24 de mayo]; las cláusulas abusivas y las condiciones generales de la contratación [SSTC 71/1982, de 30 de noviembre, 62/1991, de 22 de marzo, 264/1993, de 22 de julio, 124/2003, de 19 de junio, 157/2004, de 21 de septiembre, 54/2018, de 24 de mayo]; la responsabilidad contractual [SSTC 71/1982, de 30 de noviembre, 264/1993, de 22 de julio, 124/2003, de 19 de junio, 157/2004, de 21 de septiembre]; las acciones por incumplimiento, saneamiento o resolución [SSTC 62/1991, de 22 de marzo, 264/1993, de 22 de julio, 157/2004, de 21 de septiembre, 54/2018, de 24 de mayo]; las modalidades contractuales [SSTC 71/1982, de 30 de noviembre, 264/1993, de 22 de julio, 124/2003, de 19 de junio, 157/2004, de 21 de septiembre]; o las prohibiciones de contratar [STC 54/2018, de 24 de mayo].	egitea lotura; hau da, ondoren emandako arauekin ere lotura egin daiteke (isilbidez KAE 41/2018, apirilaren 26koa; eta esanbidez KAE 132/2019, azaroaren 13koa; lehen KAE 95/2017, uztailaren 6koak ezarri zuen irizpide desberdina gaindituz). Adierazitakoaren ondorioz, aurreproiektuak garatu nahi dituen gaiek lotura legitimatatzailerik badutela argudiatzeko funtsa nahikorik badago. Hala eta guztiz ere, zalantzarik gabekoa litzateke Estatuak beretzat ezein kasutan gordeta duen gai honi ekiteko arazoa: kontratu-obligazioen oinarriak. Orain dela gutxi arte, jurisprudentzia konstituzionalak kontratu-obligazioen oinarriari buruzko aipamen zuzenak ekidin izan baditu ere, zehaztu izan ditu ordea Estatuak gai hauetan baduela eskuduntza eskusiboa: kontratuaren eremuan eskubideak eta obligazioak ezartzea –kontratu <i>novum</i>- [KAEE 71/1982, azaroaren 30ekoa; 88/1986, uztailaren 1ekoa; 62/1991, martxoaren 22koa; 61/1997, martxoaren 20koa; 264/1993, uztailaren 22koa; 157/2004, irailaren 21ekoa; 54/2018, maiatzaren 24koa; 13/2019, urtarrilaren 30ekoa]; kontratuak burutzea, baliagarritasuna eta eraginkortasuna [KAEE 14/1998, urtarrilaren 22koa; 43/2018, maiatzaren 24koa]; abusuzko klausulak eta kontratazioko xedapen orokorrak [KAEE 71/1982, azaroaren 30ekoa; 62/1991, martxoaren 22koa; 264/1993, uztailaren 22koa; 124/2003, ekainaren 19koa; 157/2004, irailaren 21ekoa; 54/2018, maiatzaren 24koa]; kontratuzko erantzukizuna [KAEE 71/1982, azaroaren 30ekoa; 264/1993, uztailaren 22koa; 124/2003, ekainaren 19koa; 157/2004, irailaren 21ekoa]; ez betetze-, saneamendu- eta suntsiarazte-akzioak [KAEE 62/1991, martxoaren 22koa; 264/1993, uztailaren 22koa; 157/2004, irailaren 21ekoa; 54/2018, maiatzaren 24koa]; kontratu-modalitateak [KAEE 71/1982, azaroaren 30ekoa; 264/1993, uztailaren 22koa; 124/2003, ekainaren 19koa; 157/2004, irailaren
---	---

Después de la STC 132/2019, de 13 de noviembre, y ya invocando directamente la reserva estatal sobre bases de las obligaciones contractuales, se ha incidido específicamente en el carácter básico de la regla según la cual el deudor no puede compeler al acreedor a aceptar otra prestación distinta [STC 157/2021, de 16 de septiembre]; de los límites a la autonomía de la voluntad en la fijación del precio [STC 37/2022, de 10 de marzo]; o del objeto de los contratos y la capacidad para contratar [STC 81/2020, de 15 de julio]. En la relación anterior no se ha incluido la STC 132/2019, de 13 de noviembre. Lo que al respecto se dice en ella merece una atención más pormenorizada, sobre todo por la intención que a todas luces subyace en la decisión de ser una referencia al respecto: «De ahí que en materia contractual solo deba considerarse normativa básica aquellas reglas que incidan directamente en la organización económica, en las relaciones inter partes y en la economía interna de los contratos, comprobando, por ejemplo, si se respetan directrices básicas tales como el principio de la iniciativa privada y la libertad de contratación, la conmutatividad del comercio jurídico, la buena fe en las relaciones económicas, la seguridad del tráfico jurídico o si el tipo contractual se ajusta al esquema establecido en la norma estatal»... // «...las comunidades autónomas pueden legislar diversamente sobre las causas de rescisión o de nulidad contractual, pero no variar el concepto mismo de nulidad o rescisión que deben ser equivalentes y únicos para todo el país...»// «... hay que aclarar que aun cuando el legislador civil estatal no ha identificado lo que deba entenderse por legislación básica en materia de contratos, puede considerarse como tal la comprendida en los principios desarrollados en los títulos I y II del Libro IV CC (arts. 1088 a 1314), especialmente las normas relativas a las fuentes de las obligaciones (art. 1089 y ss.), a la fuerza vinculante del contrato (art. 1091 CC) y las	21ekoa]; edo kontratatzeke debekuak [KAE 54/2018, maiatzaren 24koa]. Kontratu-obligazioen oinarriei buruzko Estatu-erreserba zuzenean aipatuz, KAren 132/2019 epaiak geroztik, bereziki adierazi izan da arau hauek izaeraz oinarritzkoak direla: zordunak ezin du hartzekoduna prestazio desberdina onartzera behartu [KAE 157/2021, irailaren 16koa]; prezioa zehazteko borondatearen autonomiari mugak jartzea [KAE 37/2022, martxoaren 10ekoa]; edo kontratuaren objektua eta kontratatzeke gaitasuna [KAE 81/2020, uztailaren 15ekoa]. Zerrenda horretan ez da sartu KAren 132/2019 epaia, azaroaren 13koa. Bertan jasotako adierazpenek azterketa xehatuagoa egitea eskatzen dute, hain zuzen ere hartutako erabakiek gaiaren inguruko erreferente izateko asmoz emanak izan direlako: «Kontratuei buruzko gaietan oinarritzko arauditzat joko dira erregelak baldin eta zuzenean eragiten badiote antolakuntza ekonomikoari, alderdien arteko harremanari eta kontratuaren barne-ekonomiari, egiaztatuz, esate baterako, oinarritzko ildoak edo gidak, hala nola ekimen pribatuaren printzipioa eta kontratatzeke askatasuna, merkataritza juridikoaren trukakortasuna, harreman ekonomikoetako fede ona, trafikoko juridikoaren segurtasuna edo kontratu-tipoak Estatuko arauan ezarritako eskema errespetatzen duen edo ez»... // «...autonomia-erkidegoek lege desberdina ezarri dezakete hutsalketa- edo kontratua deuseztatzeke kausak arautuz, baina egin ezin dutena da deuseztasunaren edo hutsalketaren kontzeptua bera aldatu, berdinak eta bakarrak izan behar dutelako herrialde guztian»...// «... Estatuko legegile zibilak, kontratuen arloan oinarritzko legedia zer den zehazteko argitasunik eman ez badu ere, halakotzat hartu behar dira Kode Zibileko IV. Liburuaren I eta II. Tituluetan jaso eta garatu diren printzipioak (KZ 1088-1314), bereziki obligazioen iturriei buruzko arauak (KZ 1089 hh.), kontratuaren indar loteslea (KZ 1091) eta kontratuaren funtsezko elementuak eta eraginak ezartzen dituzten
--	--

que regulan sus elementos esenciales y efectos (1254 a 1280 CC). Con el mismo carácter básico deben tomarse los principios materiales que se extraen de estas normas tales como la autonomía de la voluntad, la prevalencia del principio espiritualista en la perfección del contrato, la eficacia obligacional del contrato en relación con los modos de traslación del dominio; la obligatoriedad del contrato, la buena fe contractual, el sistema de responsabilidad por incumplimiento, la responsabilidad universal del deudor, los requisitos de la validez y eficacia del contrato o la defensa de los consumidores» (FJ 6). En los principios, materias generales y remisiones al Código Civil en los que se condensa lo básico caben los aspectos que se habían ido señalando como reservados al Estado en decisiones anteriores. Pero en la STC 132/2019, de 13 de noviembre, se realizan algunas especificaciones que resultan de interés. Así, si en diversas decisiones se había hablado de modalidades contractuales y de validez y eficacia de los contratos, ahora se aclara que de lo que se trata es de que el tipo contractual coincida con el diseñado por la normativa estatal y de que lo uniforme tiene que ser el régimen de la nulidad o la rescisión, pero no sus causas. Hasta la STC 132/2019, de 13 de noviembre, el Tribunal Constitucional, a la hora de valorar si una materia relativa a la contratación estaba o no reservada al Estado, no había considerado relevante si la misma se regulaba con carácter dispositivo o imperativo. Además, entendía inconstitucional la mera reiteración de normativa estatal básica. Sin embargo, en la mencionada sentencia se apunta un cambio de criterio en los dos aspectos. En efecto, en la STC 132/2019 ya se insinúa que, de cara a valorar si una norma sobre contratación es básica, es índice relevante su carácter dispositivo o imperativo. Ello constituye un criterio discutible y muy posiblemente sea objeto de precisión y restricción en el futuro, pero se ha vuelto a reiterar claramente en la STC	arauak (KZ 1254-1280). Oinarrizkotasun berbera dute ere Kodeko hainbat arauetatik ondorioztatzen diren printzipioak, hala nola borondatearen autonomia, kontratua burutzeko printzipio espiritualistaren nagusitasuna, kontratuaren eragin behartzaile hutsa jabetza eskualdatzeko moduei dagokienez; kontratuaren derrigorrezkotasuna, kontratua fede onez baliatzea, ez betetzeari lotutako erantzukizun-sistema, zordunaren erantzukizun unibertsala, kontratua baliozkoa izan eta eraginak sortzeko behar diren betekizunak edo kontsumitzaileen defentsa» (6. OJ). Oinarrizkoa den hori mamitzen duten printzipioetan, gai orokorretan eta Kode Zibiler a egindako igorpenetan, auzitegiak aurreko erabakietan Estatuari erreserbatutako arloak txertatzen dira. Baina, 132/2019 K Aren epaiak, azaroaren 13koak, gaiarentzat interesezkoak diren xehetasun batzuk ere ematen ditu. Esate baterako, lehen emandako ebazpenetan kontratu-modalitateak eta kontratuaren baliagarritasuna eta eraginkortasuna aipatzen baziren ere, orain argiago uzten dena da, hain zuzen, kontua dela kontratu-tipoa bat etortzea Estatuko araudiak diseinatu duenarekin eta berdin eutsi beharreko gaiak direla deuseztasunaren eta hutsalketaren eraentza, horiek baliatzeko kausak ez ordea. Epai hori eman arte, Auzitegi Konstituzionalak, kontratazioaren inguruko gai bat Estatuari erreserbatua zegoen edo ez erabakitzeke, ez zuen aintzat hartzen ea gai hori izaeraz xedapenezko edo derrigorrezko arauetara meneratzen zen edo ez. Gainera, Estatuaren oinarrizko legedia besterik gabe errepikatzea, konstituzioaren aurkakoa dela ulertzen da. Dena den, epai horretan irizpidea aldatzen da bi alderdi hauei buruz. Hain zuzen, K Aren 132/2019 epaian, kontratazioari buruzko arau bat oinarrizkoa den edo ez erabakitzeke, erdizka esaten da izaera xedapenezko edo derrigorrezkoa oso kontuan hartu beharreko faktorea dela. Irizpide hori eztabaidatsua izanik, seguruenik etorkizunean zehaztu eta mugatuko beharko da, K Aren 157/2021
--	--

157/2021, de 16 de septiembre. En esta decisión, además, no solo se considera relevante el carácter dispositivo o imperativo de la norma estatal, sino también el de la norma autonómica, de suerte que parece darse a entender que, si en la norma autonómica en materia de contratación se configurara un régimen imperativo no existente en la norma estatal, ello determinaría igualmente una invasión de la reserva estatal sobre bases de las obligaciones. Vincular el carácter básico con la imperatividad restringe el ámbito de lo básico, pero incluso así es claro que muchos de los preceptos del anteproyecto sobre contratación afectan a las bases de las obligaciones contractuales, sea porque versan sobre materia ya regulada en la legislación estatal mediante normas imperativas, sea porque en el APLDPV se les dota directamente de tal carácter. No obstante, en la STC 132/2019, de 13 de noviembre (y después en la STC 157/2021, de 16 de septiembre), se apunta un último criterio que podría jugar en favor de la competencia autonómica incluso tratándose de materia básica: cuando se trata de competencias compartidas sobre una materia (en este caso, contratación) la reiteración del contenido de la normativa estatal básica no implica <i>per se</i> tacha de inconstitucionalidad. Y ello frente al criterio previo del Tribunal Constitucional, que era, según se ha apuntado ya, el de que la mera reiteración de normas atinentes a las bases de las obligaciones contractuales estaba vedada a las CCAA con competencia en materia de Derecho civil propio. Sin embargo, está por ver cómo se perfila este último extremo en la jurisprudencia constitucional. En la STC 132/2019, la reiteración opera a modo de salvaguarda o protección sin ningún límite, pero seguramente esta decisión ha de leerse en perspectiva meramente coyuntural. De hecho, ya en la STC 157/2021, de 16 de septiembre, se justifica la legitimidad de la reiteración en la medida en que se hace únicamente para contextualizar y hacer	epaiak onartu eta berriz baliatu duen arren. Erabaki horretan, gainera, araua izaeraz xedapenezkoa edo derrigorrezkoa dela zehaztea, Estatukoari ez ezik autonomiakoari ere egokituko zaio eta, aditzera ematen denez edo hala dirudi, Estatuko arauan ez dagoen nahitaezko eraentza eratzen badu kontratazioari buruzko arau autonomikoak, orduan badirudi obligazioen oinarriei buruzko Estatuaren eskuduntza-erreserba urratuko litzatekeela. Oinarrizko izaera eta aginduzkotasuna lotzeak oinarrizkoaren eremua murrizten du, baina, are gehiago, argi dago kontratazioari buruzko aurreproiektuko manu askok kontratuzko obligazioen oinarriei eragiten dietela, bai Estatuko legedian aginduzko arauen bidez araututa dagoen gaiari buruzkoak direlako, bai EOLAPen zuzenean izaera hori ematen zaielako. Hala ere, azaroaren 13ko 132/2019 KAEn (eta, ondoren, irailaren 16ko 157/2021 KAEn), azken irizpide bat aipatzen da, eskuduntza autonomikoaren alde egin dezakeena, oinarrizko gaia izanda ere: gai baten gaineko eskuduntza partekatuak direnean (kasu honetan, kontratazioa), Estatuko oinarrizko araudiaren edukia errepikatzeak ez dakar berez konstituzio-kontrakotasunik. Eta hori guztia Konstituzio Auzitegiaren alde aurreko irizpidearen aurrean; izan ere, adierazi denez, kontratu-obligazioen oinarriei buruzko arauen errepikapen hutsa debekatuta zegoen zuzenbide zibil propioaren arloan eskuduntza zuten autonomia-erkidegoetan. Hala ere, azken alderdi hori jurisprudentzia konstituzionalean nola zehazten den ikusteko dago. Konstituzio Auzitegiaren 132/2019 Epaian, errepikapena babes edo babes gisa egiten da, inolako mugarik gabe, baina, ziurrenik, erabaki hori ikuspegi koituntural hutsetik irakurri behar da. Egitatez, Konstituzio Auzitegiaren irailaren 16ko 157/2021 Epaian, errepikapenaren zilegitasuna justifikatzen da, beti ere testuinguruan jartzeko eta araudi autonomiko espezifikoak ulergarriago
---	--

más comprensible la normativa autonómica específica. Es decir, a tenor de esta última clave, la reiteración de la norma estatal básica solo se justificaría si sirviera de lógico apoyo o antecedente a la norma autonómica. En cualquier caso, para entrar a valorar la justificación de la reiteración de normativa estatal básica resulta necesario que se trate de una materia compartida; y ello exigiría la acreditación de la previa existencia de reglas sobre la misma en el Derecho civil vasco (escrito o consuetudinario). II. Consideraciones particulares sobre el Título I: «Del caserío y otras especialidades en materia de derecho patrimonial» 5. Tras una lectura adecuadamente prudente, el inicial juicio valorativo del Título I del anteproyecto nos lleva a indicar dos aspectos evidentes de la composición del texto, ya revelados: por un lado, como se ha señalado, se exponen redacciones oscuras (faltas de claridad) y confusas (faltas de precisión sistemática); por otra parte, se revelan graves deficiencias técnico-jurídicas que requieren un tratamiento urgente para mejorar la calidad de las normas propuestas y aplicar los conocimientos científicos que sobre la materia han desarrollado los operadores jurídicos de la academia y de la praxis. 6. Ambas vertientes se muestran en la propia estructura del Título que refiere un régimen para el «caserío» y, además, para «otras» especialidades. La delimitación del caserío se establece junto a «otros» bienes inmuebles que, curiosamente, también tienen regulación en el Título II. Todo ello aglomerado con disposiciones sobre servidumbre y «otras» servidumbres legales especiales, el arrendamiento y «otras» formas de explotación agrícola. De esta manera se presenta una mezcla de instituciones jurídicas sin ningún criterio sistemático de ordenación y desviado de lo que anuncia el título, amén de que las reguladas en el Título II también pueden	egiteko ezartzen bada. Hau da, azken gako horren arabera, Estatuko oinarritzko araua errepikatzea, arau autonomikoari euskarri edo aurrekari logikoa jartzeko erabiltzea onartzen da. Nolanahi ere, Estatuko oinarritzko araudia errepikatzeko justifikazio hori aztertu ahal izateko, gai partekatua izan behar da, eta horrek eskatuko luke, aldez aurretik, euskal zuzenbide zibilean (idatzizkoan edo ohiturazkoan) gai horri buruzko arauak badaudela egiaztatzea. II. I. tituluari buruzko ohar bereziak: «Baserria eta ondare-zuzenbidearen arloko beste berezitasun batzuk» 5. Behar bezala irakurri ondoren, aurreproiektuaren I. tituluaren hasierako balorazio-judizioak testuaren konposizioaren bi alderdi nabarmen adieraztera garamatza, jada agerian daudenak: alde batetik, adierazi denez, idazketa ilunak (argitasun-faltak) eta nahasiak (zehaztasun-falta sistematikoak) azaltzen dira; beste alde batetik, akats tekniko-juridiko larriak daude, eta presazko tratamendu kirurgikoa behar dute proposatutako arauen kalitatea hobetzeko eta akademiaren eta praxiaren eragile juridikoek gaiari buruz garatu dituzten ezagutza zientifikoak aplikatzeko. 6. Bi alderdi horiek, «baserrirako» eta, gainera, «beste «espezialitate batzuetarako eraentza aipatzen duen tituluaren egituran bertan agertzen dira. Baserriaren mugaketa «beste» ondasun higiezin batzuekin batera ezartzen da, bitxia bada ere, II. tituluaren erara araututa daudenak. Hori guztia zerbitzaritza eta «beste» legeko zerbitzaritza bereziei, errentamenduari eta nekazaritza-ustiapeneko «beste» modu batzuei buruzko xedapenekin batera. Horrela, erakunde juridikoen nahasketa aurkezten da, antolamendu-irizpide sistematikorik gabe eta tituluak iragartzen duenetik aldenduta; gainera, II. tituluaren araututakoak «ondare-zuzenbidearen
--	--

catalogarse como «especialidades en materia de Derecho patrimonial». La incertidumbre se extiende a la terminología utilizada por la diversificación de elementos objetivos cuya acepción no ha sido normativamente delimitada; así sucede con la definición de casa rural, casa de labor, edificio, pertenecidos, heredades, tierras, montes, terrenos comunales, fincas. 7. Situándonos en el plano de la política legislativa, parece que el anteproyecto pretende establecer medidas sobre «estructuras» rurales para proteger las unidades productivas agrarias mediante el impulso de técnicas que reduzcan los desequilibrios infraestructurales. Este tipo de políticas se enmarcan habitualmente en las actuaciones que los poderes públicos deben desarrollar para atender la modernización particular de la agricultura y de la ganadería a fin de equiparar el nivel de vida de los agricultores al del resto de ciudadanos (Derecho público); precisamente de ello se preocupa la Ley 17/2008 de política agraria y alimentaria del País Vasco. Ahora bien, ello no impide que se regule el alcance de la propiedad privada y su función social, y se establezcan derechos reales limitados, y regímenes contractuales que se estimen necesarios en apoyo de tales políticas, pero siempre desde los principios de libertad civil y autonomía de la voluntad tradicionales de nuestra cultura jurídica. Este enfoque civil se ve profundamente alterado por todas las medidas reglamentistas que propone el anteproyecto: segregación, agregación, agrupación y división; cierre, deslinde y amojonamiento; vinculación y desvinculación; tanteo y retracto reunificador; derechos de edificación, reedificación, plantación e instalación; derechos de residencia, habitación y sepultura; servidumbres de paso temporal o perdurable, abrevadero, descansadero, pecoreo, paisajístico, energético. Mucha de la conflictividad social y litigiosidad judicial que se plantea en esos ámbitos tendría remedio, como medida estructural,	arloko espezialitate» gisa ere sailka daitezke. Ziurgabetasuna elementu objektiboen dibertsifikazioak erabilitako terminologiara hedatzen da, elementu horien adiera ez baita arauz ondo mugatu; hala gertatzen da, adibidez, honako hauen definizioarekin: landetxea, nekazaritza etxea, eraikina, jabetzak, landak, lurrak, mendiak, herri-lurrak, finkak. 7. Legegintza-politikaren arloan, badirudi aurreproiektuak landa-egiturei buruzko erabakiak ezarri nahi dituela nekazaritzako ekoizpen-unitateak babesteko, azpiegitura-desorekak murriztuko dituzten teknikak bultzatuz. Politika horiek botere publikoek nekazaritzaren eta abeltzaintzaren modernizazio partikularrari erantzuteko garatu behar dituzten jarduketan barruan kokatu ohi dira, nekazarien eta gainerako herritarren bizi-maila parekatzeko (zuzenbide publikoaren zeregina); hain zuzen ere, horretaz arduratzen da 17/2008 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza- eta elikagaigintza-politikari buruzkoa. Hala ere, horrek ez du eragozten jabetza pribatuaren irismena eta funtzio soziala arautzea, ez eta eskubide erreal mugatuak eta politika horien alde beharrezkotzat jotzen diren kontratu-eraentzak ezartzea ere, baina betiere gure kultura juridikoaren askatasun zibilaren eta borondate tradizionalaren autonomiaren printzipioetatik abiatuta. Ikuspegi zibil hori errotik aldatzen dute aurreproiektuak proposatzen dituen erabaki arauemaile guztiek: banantzeak, gehitzeak, multzokatzeak eta zatitzeak; itxiturak, mugaketak eta mugarriak jartzeak; loturek eta deslotzeak; lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak; eraikitzeo, berreraikitzeo, landatzeko eta instalatzeko eskubideak; bizileku-, bizitoki- eta ehorzketa-eskubideak; aldi baterako edo iraunkorrerako bide-zerbitzaritzak, aska-zerbitzaritzak, aberren-atsedenlekuak, erlebazka, paisaia-eskubideak eta energia-eskubideak. Eremu horietan planteatzen diren gatazka sozial eta auzi judizial asko, egiturazko neurri gisa, aipatutako legeak jasotzen duen «partzelak biltzeko» politika
--	---

